

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

5075

EBAZPENA, 2015eko azaroaren 23koa, Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusiarena, Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren Dekretu-proiektua jendaurrean jartzeko dena.

Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren otsailaren 23ko 55/2010 Dekretuak arautu zituen kontseilu horren osaera, izendatzeko sistema, funtzionamendu-araubidea eta eginkizunak.

Kontseilua jardunean hasi zenetik 5 urte igaro direnez, bidezkoa da kontseilu horren izaera eta eginkizunak egokitzea gizartearen eta politikaren testuinguruari eta biktimen politikaren garapenari; Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak, beraz, kontseilu horren araubidea eguneratzeko dekretu-proiektu bat egitea sustatu du.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, herritarren eskubideei eta bidezko interesei eragiten dieten xedapen orokorrekin entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute. Era berean, xedapenen izaerak hala eskatzen badu, jendaurrean jarri beharko dira.

Horregatik guztiarengatik, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jendaurrean jartzea, hogeitun egun balioduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren Dekretu-proiektua.

Bigarrena.– Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako eta nahi duenak alegazioak aurkezteko, dekretu-proiektuaren edukia eskuragarri egongo da Lehendakartzako Araubide Juridikoaren Zuzendaritzan (Nafarroa kalea 2, Vitoria-Gasteiz) eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki oholean, www.euskadi.eus webgunean.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko azaroaren 23a.

Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusia,
JUAN ANTONIO FERNÁNDEZ ERDOCIA.

2015eko azaroaren 27a, ostirala

I. ERANSKINA

ENPRESA ETA ENTITATE ONURADUNAK

Esp. zk.	Eskatzailea	Zenbatekoa (eurotan)
009-2015-DPI	Euskal Editorea, S.L.	6.050,00
019-2015-DPI	Girder Ingenieros, S.L.P.	3.700,00
013-2015-DPI	Ikerpartners, S.L.	3.500,00
016-2015-DPI	Suspertu, S.L.	9.165,60
010-2015-DPI	Asociación Uribe-Costa en favor de personas con discapacidad Intelectual	9.395,20
002-2015-DPI	Asociación Agiantza Elkartea	9.989,21
020-2015-DPI	Bizkaiko Gurutze Gorria-Cruz Roja Bizkaia	7.200,00
015-2015-DPI	Baimen, S.A.	6.000,00
011-2015-DPI	Informática 68, S.A.	6.000,00
012-2015-DPI	Artez euskara zerbitzua, S. Coop.	4.219,00
021-2015-DPI	Asociación vizcaína de ayuda a personas afectadas de parálisis cerebral	10.000,00
017-2015-DPI	Asociación Bizitegi	5.236,36
014-2015-DPI	Emaús Bilbao, S. Coop.	7.608,39
018-2015-DPI	J. Apaolaza autobusak, S.L.	4.100,00
004-2015-DPI	Cía. de servicios sociales San Ignacio, S.A.U.	7.836,24
Guztira		100.000,00

2015eko azaroaren 27a, ostirala

II. ERANSKINA

ENPRESA ETA ENTITATE ORDEZKOAK

Esp. zk.	Eskatzailea	Zenbatekoa gehienez (eurotan)
014-2015-DPI	Emaús Bilbao S. Coop.	655,61
004-2015-DPI	Cía. de servicios sociales San Ignacio, S.A.U.	163,76
006-2015-DPI	Asociación ayalesa de familiares y enfermos psíquicos (ASASAM)	9.989,21
001-2015-DPI	Ascensores Muguerza, S.A.	7.000,00